

IKASTORRATZA- EDITORIALA

Gasteizen, 2008ko abendua

Zibilizazioaren mugetan, Groenlandian, ehunka lagun elkartzen dira urtero Ipar Polora ailegatzeko.

Inuiten lur okupatu horretan, abenturazaleak, telebistetako kazetariak, negozio gizon eta emakumeak bertako kanpamentu erraldoian egoten dira iparrera hurbilduko dituen hegazkinaren zain.

Hala ere, hegazkinak utzitako tokitik helmugaraino 3000 bat kilometro dago oraindik eta hemen hasten da odisea, erregaien eskasia dela eta, txakurrek tiratutako trineoak erabili behar dituztelako.

Jakin badakite etengabe mugitzen den izotz zati handi baten gainean daudela, haiek eta helmuga, baina berrehun kilometroko etapei ekiten diete, iristeko itxaropenarekin. Beraz, egunez egindako saio nekagarrien ondoren, gauez beste toki batean daudela konturatzen dira, aurrera barik atzera egin dutela egiaztatzen dute eta, bi edo hiru ibilaldien ondotik, etsipenez, hegazkinari deitu behar diote bila etortzeko.

Metafora inozo honek balio beza gure orratz magnetiko elektroniko hau beste behin aurkezteko. Gasteizko izotzetan aurkitutako zenbaki berria dakarkizuegu, argi eta bero apur bat emango digulakoan.

Istorioko lagun modura ipar bila aritzen gara orratz elektroniko didaktiko honen laguntzaz. Profesional hobeak izatea dela, beste edozein dela ere gure iparra, etengabe lekualdatzen du eta iristeko saioek kale egiten dute etxera bueltatzeko hegazkinaren zain gauden bitartean.

Pablo Lekue